

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 902/2016 Erabakia, abenduaren 20koa, onartzen duena 2017an Arabako lurralde historikoko kuadrillei eta Trebiñuko udalei euskararen arloan laguntza teknikoa eskaintzeko dirulaguntzetarako deialdia, urriaren 6ko 55/2016 Foru Dekretuak, lehiaketa bidez ematen diren dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituenak, aratuko duena

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, 2017ko ekitaldirako bere helburuen artean, aurreikusita dauka Arabako Lurralde Historikoko kuadrillei eta Trebiñuko udalei laguntza ekonomikoa ematea, Araban euskara normalizatzeko programak burutzeko teknikariak kontrata ditzaten.

Horretarako, beharrezkoa da sailak ematen dituen laguntza egokien xede diren kultura ekimenak arautzeko berariazko markoa ezartzea.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Dirulaguntzen deialdi publikoa onartzea, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillei eta Trebiñuko udalei euskararen arloan laguntza teknikoa emateko 2017ko ekitaldian; gehieneko zuzkidura 233.000 euro izango da, eta honek arautuko du deialdia: Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretua (ALHAO, 123. zk., 2015eko urriaren 21ekoa), onartu zituena Euskara, Kultura eta Kirol Sailearen eskumen esparruan lehiaketa bidez emango diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri orokor arautzaileak.

Bigarrena. Erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak, 233.000 euroko zenbatekoaz, Arabako Foru Aldundiaren 2017rako aurrekontu antolamenduko 70.1.0778.00.465.00.01 partidaren kontura ordainduko dira.

Hirugarrena. Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena aztertuta, organo eskudunak bidezko den ebazpena hartuko du; horretarako, gehienez ere, sei hilabeteko epea izango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik. Epe hori igarota esanbidezko ebazpenik hartu ez bada, interesa dutenek ulertu beharko dute eskaera ezetsi egin dela.

Laugarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Diputatuen Kontseiluari hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioke bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, dagokion administrazioarekiko auzietarako epaitegian, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan aurreikusten dituen moduetan.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Zazpigarrena. Deialdiaren behin betiko ebazpena baldintza etengarri honen mende dago: Arabako Foru Aldundiaren 2017rako aurrekontu antolamenduan kreditu egokia eta nahikoa izatea.

Gasteiz, 2016ko abenduaren 20a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Euskara, Kultura eta Kirol diputatua

IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE

ERANSKINA

INARRIAK

Lehenengoa. Xedea eta helburua

Deialdiaren helburua da 2017ko ekitaldirako dirulaguntzak ematea lehiaketa bidez, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillei eta Trebiñuko udalei euskararen arloan laguntza teknikoa eskaintzeko, Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, onartu zituenak Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak, xedatu-takoaren esparruan, helburu batekin; hain zuzen ere, nola Arabako Lurralde Historikoan hala Trebiñun euskara normalizatzeko programak burutzea.

Bigarrena. Aurrekontu egozpena

Erabaki honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2017ko aurrekontuaren barruan horretarako bideratuko den aurrekontu partidaren kontura ordainduko dira.

Behin betiko ebazpena baldintza etengarri baten mende dago; hain zuzen ere, hitzarmen gaiak eragindako gastuei aurre egiteko, Arabako Foru Aldundiaren 2017ko aurrekontuan kreditu egoki eta nahikoa izatearen mende.

Hirugarrena. Elkarre eta/edo erakunde onuradunak eta kanpoan geratuko direnak

Erakunde hauek izan daitezke onuradunak:

- a) Gasteizko Kuadrilla izan ezik, Arabako Lurralde Historikoko beste kuadrilla guztiak.
- b) Trebiñuko udalak.

Deialditik kanpo geratzen dira Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, onartu zituenak Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak, bere hirugarren klausulan zehaztutako egoeretan aurkitzen diren elkarreak.

Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen programak

1. Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzen dituzten programak garatzeko, euskara teknikariak kontratatzea diruz lagundu daiteke.

Kuadrillei gagozkiela, kontratatutako euskara teknikari horiek martxoaren 31ko 10/1998 Foru Araua, Arabako Foru Administrazioan eta Arabako Lurralde Historikoan euskararen erabilera normalizatzekoa, aplikatzearen ondorio diren zereginak izango dituzte eginkizun nagusi.

Besteak beste, euskara teknikariaren funtzioak honako hauek izango dira:

a) Euskararen erabilera sustatzen eta indartzen laguntzea Kuadrillako udal guztiei, Trebiñuko udalei, euren menpeko diren egiturei eta helbidea udal horietan duten elkarre. Halaber, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea, berariaz hori eskatzen duten ALHko eta Trebiñuko Konderriko ekonomia eragileen artean.

b) Itzulpen zerbitzua eskaintzea, berariaz hori eskatzen duten ekonomia eragileei, betiere Kuadrillako edo Trebiñuko Udaleko teknikariak egin duen plangintzaren eta dauzkan baliabideen arabera.

c) ESEParen 2017ko Kudeaketa Plana egitea, udaletako teknikarien koordinazioaren eta lankidetzaren bidez.

d) ESEParen Kudeaketa Planean jasotako jarduera eta programak gauzatzen laguntzea.

e) Zein administrazio publikotan jardun behar diren, haien Erabilera Plana garatzea.

f) Kasuan kasuko kuadrillan edo udalerrian sortzen den Euskara Batzordea dinamizatzea.

Euskara teknikarien sareak funtzionamendu ona izan dezan honako hauek izango dira kontuan:

– Euskara teknikarien sarea, ahal dela hilean behin eta beharrezkoa den guztietan bilduko da AFAko Euskararen Foru Zerbitzuarekin, jarduerak koordinatzeko, teknikariek bere lan plangintzan aurreikusitako programak nola gauzatzen ari diren ezagutarazteko eta euskara teknikarien sareko lan taldeen egitekoak egin, garatu eta koordinatzeko.

– Nola Arabako Foru Aldundiak hala Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak soziolinguistikaren arloan, bai 2017ko ESEParen Kudeaketa Plana egiten laguntzeko bai kasuan kasuko administrazioen erabilera planak garatzeko, antolaturiko prestakuntza saioetan parte hartuko du euskara teknikarien sareak.

– Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren ordezkariak kuadrilla bakoitzeko ordezkariekin eta Trebiñuko Udalekoekin urtean behin, behintzat, bilduko dira, nola kuadrillan hala haien jardun esparruko udaletan aurreikusitako programak aztertu eta nola gauzatzen ari diren ebaluatzeko.

Plan horietan jasotzen diren ekintzak eta eremuak Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (ESEP) ageri dira, zeina Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko uztailaren 24an onartu baitzuen, eta Eusko Legebiltzarrak, berriz, 2012ko irailaren 11n.

2. Xedapen honen babesean kontratatutako pertsona ez da azpikontrataduna izango. Pertsona hori honako hauekoren batek kontratatuko du:

– Kuadrillak. Kuadrillako, gehienez, lanaldi osoz jardungo duen pertsona bat kontratatu ahal izango da.

– Trebiñuko udalek. Gehienez, lanaldi erdiz jardungo duen pertsona bat kontratatu ahal izango da.

Euskara teknikaria 2017an kontratatzeak eragindako gastuak diruz lagundu ahalko dira; hau da, soldata eta Gizarte Segurantza. Dirulaguntza horretatik at gelditzen dira aparteko gastuak, hala nola, kalte-ordainak, bidaia edo kilometraje ordainak eta antzekoak.

3. Arabako Lurralde Historikoan edo, hala badagokio, Trebiñun hizkuntza politika egokia aurrera eramateko adina trebakuntza profesionala izan beharko dute euskara teknikariek. Horretarako, ezinbestekoa izango da teknikariek, gutxienez, IVAPen 3. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea egiaztatuta edukitzea eta diplomaduna izatea. Lanpostuari dagokion titulazio egokia izatea baloratuko da, baita antzerako lanetan erakutsitako eskarmentua ere.

4. Teknikariak kontratatzeke ez da zertan ezinbestean enplegua sortu.

Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea

1. Eskaerak, eranskinean ageri den eredia baliatuz eginak, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskararen Foru Zerbitzura bidaliko dira.

2. Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

– Euskara teknikaria kontratatzeak eragindako kostua, kontzeptuka xehatuta: soldatak eta Gizarte Segurantza.

- Kuadrillako ESEParen 2017ko Kudeaketa Plana.
- Kuadrillaren Erabilera Plana eta hura indarrean daukaten Kuadrillako udalena.
- Kuadrillaren eta Kuadrillako udalerrien 2017ko euskara aurrekontua, erakundeka xehakaturata.
- Honako hauek egiaztatzen dituzten agiriak:
 - Erakundearen organo eskudunak eskaera baimentzeko eta gastuaren zati bat finantzatzeko hartutako erabakia.
 - Kontratutako edo kontratatu beharreko langileak IVAPen 3. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea egiaztatuta eduki eta diploma edo baliokidea izatearen konpromisoa.
 - Aurkeztutako ekimenak kudeatzeko dauden baliabideak: giza baliabideak, baliabide materialak eta azpiegiturak.
 - Kontratutako den euskara teknikariak izango duen urteko lan plangintzaren lehentasunak eta hari esleituko zaizkion lanak.

Eskaerak ez badituzte betetzen adierazi diren baldintzak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak interesdunei hamar egun emango dizkie akatsak konpondu edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Hala egiten ez bada, eskaera artxibatu eta eskaeran atzera egin dutela esan nahiko du.

Eskaerak, eranskinean ageri den eredia baliatuz eginak, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskararen Foru Zerbitzura bidaliko dira.

Seigarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zazpigarrena. Prozeduraren instrukzioa eta balorazio irizpideak

1. Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskararen Foru Zerbitzuak izango du prozeduraren instrukzioa egiteko eskumena.
2. Laguntzaren zenbatekoa euskara teknikaria kontratatzeak eragindako gastuaren ehuneko 80 izango da. Muga 43.080 euro izango da onuradun bakoitzeko.
3. Emaizten kopurua deialdiaren diru zuzkidura baino handiagoa bada, jaso beharreko dirulaguntza proportzio berean hainbanatuko da, dirulaguntza deialdiaren aurrekontu baliabideetara egokitzeko.

Zortzigarrena. Ebazpena

1. Eskaerak balorazio batzorde batek aztertuko ditu. Batzorde horren lehendakaria Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria izango da, eta honako hauek mahaikide: Euskararen Foru Zerbitzuaren burua eta Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzari atxikitako bi teknikari. Euskara, Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua izango da idazkaria, eta horrek hitza izango du, baina ez botorik.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz; eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, aurreikusitako epeen barruan gerta liteke espedientea atzeratzea, eta are artxibatzea ere.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, balorazio batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz.

2. Eskatzaileei ez zaie eskainiko entzunaldiko izapiderik, haiek aurkeztutako gertaerak eta agiriak besterik ez direlako aintzat hartuko ebazpenean.

3. Organo eskudunak eman beharreko ebazpena emango du, Euskararen Foru Zerbitzuak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

4. Esleipen ebazpenean, dirulaguntza nori eman zaion zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi egin direla.

5. Dirulaguntza eskaerari baiezkoa eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoarekin.

6. Hainbanaketa aplikatzearen ondorioz gutxituz gero jasotzekoa den dirulaguntza, eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 25. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri, onuradunari eskaera berriro egitea eskatu ahal zaio, konpromisoak eta baldintzak egokitu ditzan eman dakioken dirulaguntzara.

7. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du; beraz, uztailearen 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenaren, 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

8. Zuzenean aurka egin ezean, nahi izanez gero errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri.

Bederatzigarrena. Emandako dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea

1. Aldez aurreko eta konturako ordainketak egin ahal izango dira, foru arauetan ezarritakoaren arabera.

2. Ordainketa honela egingo da:

– Emandako dirulaguntzaren ehuneko 60, "justifikatu beharreko aurrerakin" gisa, ebazpena ematen den egunetik bertatik aurrera ordainduko da.

– Gainerakoa ordainketa bakarrean ordainduko da, egindako gastuak, behar bezala zerrendatuta, justifikatu ondoren, aurreko paragrafoan aipatutako "aurrerakina" kenduta.

Dirulaguntzen justifikazioa egin beharko da Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuaren, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituenaren, hamargarren klausulan ezarritakoaren arabera.

Gastu guztiak 2017ko abenduaren 29 baino lehen justifikatuko dira. Horretarako, honako agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Kuadrillaren eta/edo Kuadrilla edo Trebiñuko enklabea osatzen duten udal bakoitzaren ESEParen 2017ko Kudeaketa Planaren memoria.

b) Kuadrillaren eta/edo kasuan kasuko udalaren Erabilera Planaren memoria.

c) Euskara normalizatzeko lana sustatzen duten Arabako Lurralde Historikoko Kuadrilletako edo Trebiñuko toki erakundeetako gizarte eragileen artean egindako koordinazio bileren akten zerrenda eta haien laburpena; baita kuadrilla bakoitzaren edo Trebiñuko udal bakoitzaren ordezkarien eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren ordezkarien artean hilean behin egindako jarraipen bileren akta ere.

Gainerako agiriez gain, kuadrillek eta Trebiñuko udalek honako hauek aurkeztuko dituzte:

- Euskara teknikari lanetarako kontratatutako pertsonaren nominaren eta Gizarte Segurantzaren TCen jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak.
- Euskara teknikariaren lan kontratua.
- Euskara teknikariak IVAPen 3. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea duela eta diplomaduna dela egiaztatzen duten agiriak; baita titulazio akademikoa ere (lehenago ez bada aurkeztu, edo aldaketaren bat egon bada).

Dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu izana frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza.

2018ko otsailaren 23a baino lehen aurkeztu beharko dira dirulaguntza justifikatzen duten gastuak ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak; baita Kuadrillaren edo Trebiñuko Konderriko udalen euskara aurrekontua zenbateraino bete den adierazi ere.


Hamargarrena. Dirulaguntzen bateraezintasuna

Dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretan ezarritakoa gorabehera, deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateraezinak izango dira Arabako Foru Aldundiaren beste sail batzuetatik edo haiei atxikitako erakundeetatik jasotako dirulaguntzekin, nola eta ez dituzten baimendu bi erakundeek batera.

Beste administrazio batzuek zein nazioko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatuek emandako beste dirulaguntza batzuk jasotzea onartu ahal izango du deialdiak, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez bada diruz lagundutako jarduera baino gehiago edo ez badu eragiten eskatutako finantzazioa jaisterik, hala badagokio, diruz lagundutako jarduera aurrera ateratzeko.

Hamaikagarrena. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahaleginak egingo dira hedabideetan ahalik eta zabalkunde handiena izan dezan.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Trebiñuko udalen eta Lurralde Historikoko Kuadrillen diru-laguntza eskaera, euskara arloan laguntza tekniko eskaintzeko</p> <p>Solicitud de subvención de los Ayuntamientos de Treviño y de las Cuadrillas del Territorio Histórico de Álava para cooperar en la asistencia técnica de euskera</p> <p>2017</p>
--	---

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

Eskaera zk. ■ N° Solicitud

Eskaera data ■ Fecha Solicitud

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE ⁽¹⁾

Identifikazio agria ■ Documento identificativo				Identifikazio zk. ■ N° identificativo			Sexua ■ Sexo	
IKZ CIF	NAN DNI	AIZ NIE	Besteren bat Otro				Emakumea Mujer	Gizona Hombre
Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social				Lehen abizena ■ Primer apellido			Bigarren abizena ■ Segundo apellido	
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)				Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano
Herraldea ■ País	Probintzia ■ Provincia	Udalerrria ■ Municipio		Herrria ■ Localidad		P. K. ■ C. P.		
Telefona ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Faxa ■ Fax		Posta elektronikoa ■ Correo electrónico				

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL ⁽²⁾

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)				Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano
Herraldea ■ País	Probintzia ■ Provincia	Udalerrria ■ Municipio		Herrria ■ Localidad		P. K. ■ C. P.		

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Persona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)


Identifikazio agria ■ Documento identificativo			Identifikazio zk. ■ N° identificativo			Sexua ■ Sexo	
NAN DNI	AIZ NIE	Besteren bat Otro				Emakumea Mujer	Gizona Hombre
Izena ■ Nombre			Lehen abizena ■ Primer apellido			Bigarren abizena ■ Segundo apellido	
Protokolo zk. ■ N° protocolo			Data ■ Fecha			Notarioa ■ Notario	
Telefona ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Faxa ■ Fax		Posta elektronikoa ■ Correo electrónico			

www.araba.eus

Probintzia plaza, 01001 Vitoria-Gasteiz. Tel. +34 945 181818. Fax +34 945 181947. e-mail:jarrieta@araba.eus
© Arabako Foru Aldundia - Diputación Foral de Álava, 2015

1 / 3

EE: 18/278

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Trebiñuko udalen eta Lurralde Historikoko Kuadrillen diru-laguntza eskaera, euskara arloan laguntza teknikoa eskaintzeko</p> <p>Solicitud de subvención de los Ayuntamientos de Treviño y de las Cuadrillas del Territorio Histórico de Álava para cooperar en la asistencia técnica de euskera</p> <p>2017</p>
--	--

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

Aurkeztutako aurrekontua ■ Presupuesto presentado

Ustezko sarrerak ■ Ingresos previstos

Eskatutako zenbatekoa ■ Importe solicitado

Lan-saria Sueldo y Salario	Enpresaren konturako Gizarte Segurantzza Seguridad Social a cargo de la empresa	Gastua guztira Gasto total	Eskatutako zenbatekoa Importe solicitado	Norberaren ekarpena Aportación propia	Beste sarrerak Otros ingresos

BANKUA/ BANCO	
IBAN	

ERANTSITAKO AGIRIAK ■ : DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA

ESEP 2017ko ESEP Kudeaketa lana ■ Plan de Gestión 2016 del ESEP.

Egiaztagiri baten bidez honako atal hauek guztiak ziurtatuko dira / En un documento se certificará cada uno de los siguientes apartados:

Erakundearen organo eskudunak gastua baimentzeko eta gastuaren zati bat finantzatzeko hartutako erabakia. ■ Acuerdo del Organo competente autorizando la solicitud y financiación parcial del gasto.

Teknikariaren kontratazio gastu desglosatua (soldata eta gizarte segurantzza). ■ Gasto desglosado del coste de la contratación del personal técnico (salario y seguridad social).

Kuadrillako edo udaletako Erabilera Plana indarrean. ■ Plan de Uso de la Cuadrilla y de los ayuntamientos de la Cuadrilla que lo tengan en vigor.

Kuadrillaren eta Kuadrillako udaletako 2017 euskara aurrekontua. ■ Presupuesto de euskera 2017 de la Cuadrilla y de los municipios de la Cuadrilla.

Teknikariari urtean zehar egotziko zaizkion lan-plangintzaldia eta lan-zereginak. ■ El plan de trabajo anual previsto para el personal técnico de euskera que vayan a contratar y las diferentes labores que se le adjudicarán.

Teknikariak IVAPeko 3. HE edo baliokidea bermatzeko konpromisoa ■ Compromiso de que el personal técnico asegurará un perfil lingüístico 3 del IVAP o equivalente.

Teknikariaren diplomatura titulazioa, edo baliokidea, bermatzeko konpromisoa ■ Compromiso de que el personal técnico asegurará título de diplomatura o equivalente.

Aurkeztutako ekimenak kudeatzeko dauden baliabideak: giza baliabideak, baliabide materialak eta azpiegiturak. ■ Recursos disponibles para gestionar las iniciativas presentadas, humanos, materiales e infraestructuras.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Trebiñuko udalen eta Lurralde Historikoko Kuadrillen diru-laguntza eskaera, euskara arloan laguntza tekniko eskaintzeko</p> <p>Solicitud de subvención de los Ayuntamientos de Treviño y de las Cuadrillas del Territorio Histórico de Álava para cooperar en la asistencia técnica de euskera</p> <p>2017</p>
--	---

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen/Ordezkairearen sinadura ■ Firma de la persona solicitante/representante

Oharra (1)

Datu Pertsonalak Babesteko dauden arauak betetz, jakinarazten dizugu zure datuak Aldundi honen fitxategietan jasoko direla. Fitxategi horiek Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Erregistroan inskribatuta daude eta horren eskumeneko eginkizunak gauzatzeko egoki diren segurtasun neurriak dituzte. Datu horiek ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak baimendutako kasuetan izan ezik. Datuen kontra egiteko, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko edo ezerezteko eskubideak egikartu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegoan (Probintzia plaza 5, P. K. 01001 Gasteiz, Araba).

Oharra (2)

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alia eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, [postia elektronikoa bakararen helbidea \(EBH\)](#) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduretan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

Oharra

Berdintasuaren arloko araudia betetz, honako hau ADIERAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- Ez ordezkatzen dudan erakundeak ez erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridikok edo elkartek ez duela, sexua dela eta, inor baztertzeko, ez zuzenean ez zeharka, onarpen eta funtzionamendu prozesuetan, OL.Oren 13. artikuluan eta Euskadiko Berdintasun Legearen 24(2) artikuluan xedatutakoekin bat etortz.

BIGARRENA.- Ez ni ez ordezkatzen dudan erakunde edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridiko edo elkarke ez dela zigortua izan, ez arlo penalean ez administrazioan, sexua dela eta, inor baztertzeko, ez eta abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuan eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren xedapen gehigarrietako hamalagarrenean gizonen eta emakumeen berdintasun arloan xedatutakoak urratzeagatik ere. Legegintzako errege dekretuak Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du eta lege organikoak emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna. Hona hemen halako batzuk, besteak beste:

1. Ez bete Langileen Estatutuak edo aplikagarri diren hitzarmen kolektiboak berdintasun planen arloan ezarritako beharberak
2. Sexua dela eta, ordainsari, lanaldi, prestakuntza, sustapen eta gainerako lan baldintzetan bereizkeria zuzena edo zeharkakoa dakarten enpresa erabakiak.
3. Langileek enpresan egindako errekklamazio edo berdintasun eta bereizkeriarik gabeko printzipioa betetzeko eskatzen duten egintza administrazio edo judicial baten aurrean, haien aurkako jarrera dakarten enpresaburuaren erabakiak.
4. Publizitate edo beste zernahi hedatze bidez, baldintzak ezartzea, sexua arrazoi, onerako edo barrerako baztertzeko dutenak.
5. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarlea nomahi dela ere.
6. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarlea nomahi dela ere, baldin eta enpresaburuak, jakinaren gainean, ez badu neurrik hartu halakorik egiditeko.
7. Berdintasun planik ez egitea edo aplikatzea edo, halakorik izan arren, argi eta garbi ez betetzea, baldin eta plan hori egiteak abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 46.bis.2 paragrafoan xedatutakoari erantzuten badiu. Legegintzako dekretu horrek Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du.

Nota (1)

En cumplimiento de la normativa de "Protección de Datos de Carácter Personal", le informamos de que sus datos se incluirán en ficheros de esta Diputación, inscritos en la Agencia Vasca de Protección de Datos y que cuentan con las medidas de seguridad adecuadas para la realización de funciones de su competencia. No serán comunicados a otras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente. Podrá ejercitar los derechos de oposición, acceso, rectificación y cancelación en la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5. C. P. 01001 Vitoria-Gasteiz (Álava).

Nota (2)

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una [dirección de correo electrónico única \(DEU\)](#) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los [procedimientos](#) que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente

Nota

En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

PRIMERO.- Que ni la organización a la que represento, ni persona jurídica o entidad alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de la entidad a la que represento realizamos actos de discriminación directa y/o indirecta por razón de sexo en los procesos de admisión o en el funcionamiento de conformidad con lo estipulado en el artículo 13 de la LGS y artículo 24(2) de la Ley de Igualdad de Euskadi

SEGUNDO.- Que ni yo, ni la organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de esta sociedad, hemos sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social y Disposición Adicional Decimocuarta de la Ley Orgánica 3/2007, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres de 22 de marzo (entre otras, a título no limitativo):

1. No cumplir las obligaciones que en materia de planes de igualdad establecen el Estatuto de los Trabajadores o el convenio colectivo que sea de aplicación
2. Decisiones unilaterales de la empresa que impliquen discriminaciones directas o indirectas adversas en materia de retribuciones, jornadas, formación, promoción y demás condiciones de trabajo, por circunstancias de sexo,
3. Decisiones del empresario que supongan un trato desfavorable de los trabajadores como reacción ante una reclamación efectuada en la empresa o ante una acción administrativa o judicial destinada a exigir el cumplimiento del principio de igualdad de trato y no discriminación
4. Establecer condiciones, mediante la publicidad, difusión o por cualquier otro medio, que constituyan discriminaciones favorables o adversas para el acceso al empleo por motivos de sexo,
5. Acoso sexual, cuando se produzca dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo de la misma
6. Acoso por razón de sexo, cuando se produzcan dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo del mismo, siempre que, conocido por el empresario, éste no hubiera adoptado las medidas necesarias para impedirlo
7. No elaborar o no aplicar el plan de igualdad, o hacerlo incumpliendo manifiestamente los términos previstos, cuando la obligación de realizar dicho plan responda a lo establecido en el Apartado 2 del 46 bis del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social.

www.araba.eus

Probintzia plaza, 01001 Vitoria-Gasteiz. Tel. +34 945 181818. Fax +34 945 181947. e-mail:jarrieta@araba.eus
© Arabako Foru Aldundia - Diputación Foral de Álava, 2015

3 / 3